



# MUNGIA SLOW CITY


## VISITA GUIADA



Ezagutu Euskal Herriako Slow City den herri bakarrenetariko bat.


Mungiak oraina ahalik eta ondoen bizitzeko aukera ematen digu, beti etorkizunera adi, baina lehenaldia ahaztu barik; horrexegatik lortu du Slow City izendatzea. Mungia ha conseguido ser un entorno acogedor, amable y abierto. Mungiak eroso, atsegina eta irekia izatea lortu du.

Mungiara joan-etorri bat egitera gonbidatzen zaituztegu; ezagutu Landetxo Goikoa baserria; egizue ibilalditxoa elizate noblean zehar; bide batez, ikusi bertan dauden monumentuak eta, dena biribiltzeko, probatu eta gozatu bertoko jateko tradizionala.



### HISTORIA

Mungiak kokapen geografiko aparta du, itsasertzetik hurbil dagoen ibar epel batean dago kokatuta. Ere mu zabalak, muino leunak eta ur lasterrekin tartekatzen dira, eta horrek guztiak eragin handia izan du bere ingurune naturalean eta bere bizimoduan..



Udallerriaren aberastasun iturri nagusia baserriari eta landa giroari lotutako nekazaritza tradizionala izan da mendeetan zehar.

Mungiako Uria 1376an sortu zen, izen bereko Elizatearen erdigunean, hain zuzen. Erdi Aroan eskualdeko leinu garrantzitsuen arteko liskar ugariren lekukoa izan zen Mungia. Garai horretako ondare historiko garrantzitsu bat gorde da: Torrebillela. Dorretxe horrek, aldaketa ugari egin zaizkion arren, Erdi Aroko Dorreen forma tipikoa gorde du.



# MUNGIA SLOW CITY



## ERDI AROKO HERENTZIA

Garai horretako ondare historiko garrantzitsu batzuk ere gorde dira: Zumetzagako San Migel ermita (Erromanikoak Euskal Herrian duen adibiderik onenetakoa) eta portada gotiko ederra duen jatorri erromanikoko San Pedro Eliza.

Mungiako Monumentu Ondarearen altxorrik preziatuena, ezinbestez bisitatu behar dena, Landetxo Goikoa baserria da. XVI. mendearen hasieran eraiki zen. Euskal Herriko baserririk zaharrenetarikoa hau monumentu kategorian duen Ondasun Kultural moduan dago izendatuta. Landetxo Goikoa Euskal Herriko lehen parke mitologikoaren egoitza da: Olentzeroren Baserria – Izenaduba Basoa.

## BISITA GIDATUAK ETA DIDAKTIKOAK

Bisitak gida batek lagunduta egingo dira.

Gutxienez 20 laguneko taldea

### BISITA

- Mungiaren erdigune historikoa eta bertako leku interesgarri guztiak.
- Landetxo Goikoa: baserria
- Jateko tradizionala

PRECIO: 20 € pertsona

## INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

Tel: 946 740 061

[olentzero@izenaduba.com](mailto:olentzero@izenaduba.com)

### HORARIO

Erreserba egin behar da aurretik.

Astelehenetik igandera  
10:00-14:00  
16:00-20:00



## LANDET XO GOIKOA

Landetxo Goikoa XVI. mendekoa da eta bisita gidatuaren bitartez baserriaren arkitektura tipologia eta duen eraikitze-sistema konplexu eta landua ezagutzeko aukera izango dugu.

Ohikotik kanpoko bisita da, atsegina eta interesgarria. Bizkaiko baserririk zaharrena bisitatzera gonbidatzen zaitugu, gure iragana ezagutzeko aukera paregabea duzu.



## SLOW FOOD

Gure udalerrriak kalitatezko etorkizuna eta bizimodua eskaini nahi die bertako bizilagunei. Izan ere, Mungia Bizkaiko udalerrri aitzindaria da Slow Food mugimenduaren barruan. Mugimendu horren helburu nagusiak ondokoak dira: nekazaritza arloko biodibertsitatea gordetzea, desagertzear dauden elikagai tradizionalak babestea eta kontsumitzaile eta kalitatezko produktuen ekoizleen arteko harreman zuzena bultzatzea.

Gure bisita osatzeko bazkari tradizionala eskaintzen dizuegu (indabak sakramentu guztiekin, entsalada, postrea, ogia, ura eta ardoa).